



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2019KO EKAINA

Ekaina lehorra edo oso lehorra izan zen, eta tenperaturari dagokionez beroa edo oso beroa. Zirkulazioari dagokionez, azpimarratu behar da oso meridianoa izan zela; horrek, urte sasoi horretarako erlatiboki aire masa oso hotzak eta oso beroak sartzea erraztu zuen. Gauzak horrela, hilaren 12an barnealdeko zenbait lekutan tenperatura minimo absolutuen errekorrak izan ziren eta Iturrietako mendietan izotza egin zuen. Maiatzeko azken egunetan kontrakoa gertatu zen, bero-bolada izan genuen. Hain zuzen, muturreko fenomeno meteorologikoen artean beroagatik igorri zirenak nagusitu ziren, gainera ekainean abisuak urriak izan ziren.

Prezipitazioa

Prezipitazioari dagokionez, oro har, ekaina lehorra eta oso lehorra izan zen. EAEaren barnealdearen zati handi batean espero zitekeenaren ia erdia ere ez zen pilatu. Arabako Lautada izan zen euri gutxien jaso zen zonaldea, gune batean ohiko balioaren %25 besterik ez zen jaso. Aldiz, Arabako Errioxan kalifikazioa ohikora hurbildu zen eta Gipuzkoa ekialdean ohikoa izan zen.

Gradiente plubiometriko handia dago maximoen eta minimoen artean. Maximoak Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ziren (Eskas 122 mm, Behobia 98.1 mm, Ereñozu 94.5 mm) eta minimoak Arabako Lautadan (Ozaeta 11.1 mm, Alegría 11.5 mm, Abetxuko 13.8 mm). Balio oso eskasak beste zonalde batzuetan ere, adibidez Bilbo Handian (Sangroniz 22.4 mm, Abusu 25.3 mm) eta Deba Goienan (Oñati 21 mm, San Prudentzio 24.7 mm).

Espero zitekeen bezala, euri-egunak ohi baino gutxiago izan ziren, bereziki Arabako Lautadan non bi besterik ez ziren izan. Salbuespena Arabako Errioxa da, 5 euri-egun izan ziren, azken finean ia ohiko balioa.

Hilaren 5a izan zen euritsuena, eta egun hartan soilik izan zen prezipitazioa oso ugaria (≤ 30 mm), bereziki Gipuzkoa ipar-ekialdean (Eskas 50.4 mm, Behobia 47.3 mm, Añarbe 40.5 mm, Ereñozu 36.7 mm, Oiartzun 35.7 mm).

Hurrengo egunik euritsuena hilaren 11a izan zen, prezipitazio ugariarekin (≤ 10 mm) kantauri isurialdeko zenbait lekutan, han-hemenka sakabanatuak (Cerroja 21 mm, Behobia 20.6 mm, Matxitxako 18.6 mm, Eskas 13.6 mm).

Hilaren 20 eta 21 arte prezipitazio ez zen ugaria izan. Hilaren 20an Araba hegoaldean eta Gipuzkoa ipar-ekialdean (Kanpezu 14.3 mm, Eskas 14.3 mm, Moreda 13.4 mm, Ereñozu 11 mm) eta hilaren 21ean kantauri isurialdeko zenbait tokitan (Iruzubieta 15.5 mm, Berriatua 14.4 mm, Ereñozu 14.3 mm, Mañaria 13 mm).

Hilaren 30ean zaparrada trumoitsu batzuk bota zituen, bero-boladaren ondoren goi-geruzan ezegonkortasuna handitu baitzen.

**Taula 1: Azken urteetan ekainean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	15.0	38.3	62.0	38.2	47.7	19.1	96.7	41.4	29.2	205.2
Lasarte	66.8	94.2	71.8	40.8	90.7	64.8	159.0	50.7	81.0	156.0
Arrasate	35.4	68.2	74.5	47.4	62.6	23.9	144.8	32.0	21.8	160.7
Abetxuko	13.9	40.6	57.3	45.5	43.5	36.4	96.6	19.2	8.3	79.7
Párganos	28	37.4	68.6	13.1	58.5	19.1	69.8	23.0	34.4	77.4

Temperatura

Temperaturari dagokionez, ekaina beroa eta oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperaturak 18 °C-ak gainditu zituen, aldiz Arabako Lautadan 17.5 °C ingurukoa izan zen. 1981-2010 denboraldi klimatologikoko batezbestekoarekin alderatuz diferentzia positiboa da, ia 1 °C-koa EAE osorako. Azken urteekin alderatuz erdialdeko lekuan dago, 2003ko eta 2005eko batezbestekoetatik urrun.

Lehen egunak beroak izan ziren, gainera anomalia oso altuekin, baina gero pixkanaka giroa hozten joan zen eta lehen hamabostaldian egun hotzak nagusitu ziren. Bigarrenean, aldiz, egun beroak gailendu ziren.

Zirkulazio orokorra oso meridianoa izateagatik bereizi zen eta, horregatik, muturreko tenperaturak izan genituen, bai hotzak eta baita beroak ere.

Gauzak horrela, hilaren 12 inguruan depresio hotz bat kokatu zen Iberiar penintsularen iparraldean eta urte sasoi hartarako tenperatura oso baxuak neurtu ziren, erabat ezohikoak. Barnealdeko estazio batzuetan XXI. mendeko tenperaturarik baxuenak neurtu ziren, eta 2002ko ekainaren 7ko eta 2013ko ekainaren 4ko errekorrak gainditu ziren. Iturrieta inguruko mendietan izotza egin zuen (Iturrieta -0.7 °C); ordura arte inoiz ez zen gertatu halakorik. Araba erdialdeko beste hainbat estaziotan ia izotza egin zuen (Trebilño 0.1 °C, Salvatierra 0.4 °C, Subijana 0.8 °C). Vitoria-Gasteizen errekorra gainditu zen (Abetxuko 2.4 °C) eta isurialdeen banalerro inguruan ere bai (Altube 1.8 °C, Gorbea 2.4 °C, Urkiola 2.5 °C).

Kontrako egoera izan genuen ekainaren amaieran, tenperatura altu iraunkorren gertaera garrantzitsu batekin. Afrika iparraldean jatorria zuen aire masa oso bero batek eragin zigun eta bero-bolada zonalde guztietan nabaritu zen. Lehen egunetan beroa handiagoa izan zen kantauri isurialdean; hilaren 27an efemerideak izan genituen Bizkaia mendebaldean. Gero, hego-ekialdeko haizeak indarra galdu zuen eta, nahiz eta aire masa beroarekin jarraitu, azken egunetan tenperatura altuenak mediterraneo isurialdean neurtu ziren; ipar isurialdean tenperatura maximoak apur bat jaitsi egin ziren. Hilaren 28an Araba hego-ekialdean izan genituen efemerideak eta hilaren 29an ia Araba osoan,



Aiaraldean izan ezik, egun hartan aurreko eguneko balioak gainditu egin ziren. Azpimarragarria da Abetxukon neurtu zen balioa, 39.4 °C, mende honetan oraingoz ekaineko baliorik altuena, eta baita Moredako (42.6 °C) balioa ere, sare osoko tenperaturarik altuena bero-bolada osoan.

Azken egun haietako tenperatura minimoak ere azpimarragarriak izan ziren, bereziki hilaren 27an, izan ere minimoak 20 °C baino altuagoak izan ziren ia Araba osoan. Gauean izan genituen goi-hodeiek eta goizaldeko hego-ekialdeko haize indartsuak eragin zuten gau tropikala. Hilaren 29an Ebro ibarrean egoera errepikatu egin zen, baina ez Arabako gainerako tokietan.

Ekaineko azken egunean beroak amore eman zuen zonalde guztietan, Ebro ibarrean izan ezik non puntualki 38 °C-ak gainditu ziren (Moreda, 38.5 °C). Arratsalde erditik aurrera ekaitz-guneak aktibatu ziren Ebro ibarrean eta tenperatura jaitsi egin zen.

Taula 2: Ekainean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	18.1	18.8	19.3	18.8	19.4	19.3	16.2	19.3	18.6	17.8
Lasarte	17.6	18.1	19.4	17.9	18.3	18.5	15.7	18.7	18.0	17.4
Arrasate	17.1	17.2	18.7	17.0	17.8	17.8	14.6	17.8	16.6	16.0
Abetxuko	17.6	17.2	18.6	16.9	18.1	17.7	14.7	17.9	16.3	15.8
Párganos	19.7	18.1	20.6	18.4	19.6	18.5	15.9	19.3	17.9	16.9

Haizea

Hilabete ia osoan tokian tokiko haizeak nagusitu ziren. Gauzak horrela, kostaldean iparraldeko haizea nagusitu zen, bereziki laugarren koadranteak, nahiz eta beste egun batzuetan lehenengo koadranteak ere nagusitu. Araba hego-ekialdean bigarren koadranteko haizea nagusitu zen, hego-ekialdeko haize-bolada gogor batzuekin. EAE erdialdean oro har norabide aldakorreko haize ahula ibili zen goizeetan eta arratsaldetan iparraldekoa nagusitzen zen.

Haizearen intentsitatea ez zen gogorra izan, baina pare bat gertaera azpimarratu behar dira. Hilaren 6an, ziklogenesi leherkorraren ondorioz Miguel bezala izendatu zuten depresioa sortu zen Galizia eta Portugalgo kostaldearen parean. Hilaren 6ko egunaren bigarren partean eta hilaren 7ko goizaldean depresioak Bizkaiko golkoa zeharkatu zuen oso bizkor, Britainiarantz. Hilaren 6an, azken orduetan haizea hegoalde finkatu zen eta Bizkaiko mendi inguruetan bolada gogor batzuk izan ziren, baita Bizkaiko kostaldeko lekuren batean ere. Hilaren 7ko goizaldean haizeak zakar jarraitu zuen jotzen eta barnealdean ere haizea indartu egin zen (Moreda, 83.3 km/h)



Ekaineko azken herenean barnealdean hego-ekialdeko haizea nagusitu zen, eta hilaren 26an eta 27an kantauri barnealdean ere hego-ekialdeko haizea nagusitu zen. Haize-boladak ez ziren bereziki oso gogorak izan, baina hilaren 27an puntualki 100 km/h-ak gainditu ziren, eta 80 km/h-ak haizeguneak ez diren tokietan (Orduña, 109.4 km/h; Ilarduia, 97.7 km/h). Hilaren 26an, gauean, Ilarduian 93.9 km/h-ko haize-bolada neurtu zen.

Hilaren 18an enbata gertatu zen. Egun hartan bero handia egin zuen, kostaldean hainbat estazioan 30 °C inguruko balioak neurtu ziren eta Deustuko estazioan 34.6 °C. Arratsalde erdian gutxi gorabehera Punta Galean haizeak ipar-mendebaldera egin zuen. Gero enbata kostaldean zehar mendebaldetik ekialdera mugitu heinean, 7-8 °C inguruko tenperatura jaitsierak eragin zituen. Deustuko estazioan jaitsiera 14 °C-koa izan zen.

Los días 26 y 27 se producen otras dos galernas. Son días muy calurosos en toda la región, con viento del sureste. Durante las horas previas al anochecer, el viento gira a oeste-noroeste con brusquedad en la costa, dejando rachas muy fuertes de viento ambas jornadas y provocando descensos notables de las temperaturas. La del día 27 es la más intensa de las dos, ya que corresponde al día más caluroso del mes en la franja costera. Ese día se registran 85.7 km/h en Santa Clara y la temperatura baja casi 17 °C en la estación de Deusto en media hora.

Hilaren 26an eta 27an bi enbata gertatu ziren. Hego-ekialdeko haizea ibili zen eta bero handia egin zuen EAE osoan. Ilunabar inguruan haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen zakar; bi egunetan haize-bolada oso gogorak eta tenperatura jaitsiera handiak eragin zituen enbatak. Hilaren 27ko enbata izan zen bietan gogorrena, izan ere kostaldean ekaineko egunik beroena izan zen. Santa Claran 85.7 km/h-ko haize-bolada neurtu zen eta Deustuko estazioan ordu erdian tenperatura ia 17 °C jaitsi zen.

Analisisa

Ekainaren 1etik 3ra

Azoreetako gailur batekin hasi genuen ekaina eta pixkanaka ekialdera mugitu zen; adbezkio beroa izan genuen maila guztietan. 850 hPa-eko mailan tenperatura 20 °C ingurukoa izan zen hilaren 1ean. Lurrazalean presio altuen erdigunea Europa erdialdean zegoen eta hego-osagaiko fluxua nagusitu zen EAEn. Hilaren 2an presio altuak kontinentean ekialdera mugitu ziren eta hilaren 3an ahuldutako fronte bat iritsi zitzaigun.

Ekainaren 4a eta 5a

Hilaren 4an egoera nabarmen aldatu zen, aire hotzezko aska bat iritsi zenean; 500 hPa-eko mailan -20 °C inguruko tenperatura. Lurrazalean Britainiar uharteetan zegoen depresioa izan zen askaren isla eta fronte hotz batek Iberiar penintsula osoa zeharkatu zuen. Frontearen ondoren jatorri polarreko aire masa



hotza eta hezea sartu zen; hilaren 5ean 850 hPa-eko mailan tenperatura 3-4 °C ingurukoa izan zen.

Ekainaren 6tik 7ra

Hilaren 6an ziri antizikloniko txiki bat sartu zen Kantaurira. Goi-geruzan beste aska batek ziklogenesi leherkor bat sortzea erraztu zuen eta depresioari Miguel izena jarrai zioten. Galizia mendebaldean sortu zen eta Frantzia iparraldera mugitu zen Bizkaiko golkoa zeharkatuz.

Ekainaren 8tik 12ra

Hilaren 8a trantsizio eguna izan zen. Hilaren 9tik aurrera aire hotzezko beste aska bat sortu zen eta, hilaren 11tik 12ra bitartean, Bizkaiko golkoan depresio hotz bat sortu zen; 500 hPa-eko mailan -25 °C inguruko tenperaturarekin eta 850 hPa-eko mailan 1-2 °C-ko balioekin.

Ekainaren 13tik 15era

Hilaren 13tik aurrera presio baxuak iparraldera mugitu ziren eta Britainiar uharteen parean kokatu ziren. Goi-geruzan depresio hotz bat sortu zen eta oso modu erratikoan mugitu zen.

Ekainaren 16tik 21era

Hilaren 16an Azoreetako antizikloia Kantaurira eta Europa mendebaldera zabaldu zen. Presio altuen eremua pixkanaka Europa ekialderaino zabaldu zen Atlantikoko depresio batek bultzatuta. Depresio hura Iberiar peninsularen ipar-mendebaldera hilaren 18an iritsi zen, baina nahikoa ahuladuta. Gero Ipar itsasora mugitu zen. Depresioa pasa ondoren, hilaren 21ean berriro ere presio altuak gailendu ziren; depresioaren erdigunea Kantauri eta Britainia inguruan zegoen.

Ekainaren 22tik 30era.

Hilaren 22an Atlantikotik depresio bat hurbildu zen, goi-geruzetan aska batekin; aska hura eten egin zen, goiz-geruzan askatutako depresio bat sortuz. Depresioa geldikor geratu zen Bizkaiko golkoan, baina Iberiar penintsulara sartu gabe. Iberiar peninsularen ekialdetik eta Mediterraneo ingurutik Afrika iparraldean jatorria zuen aire erabat berozko mihi bat sartu zen Iberiar penintsulara, gure parean eta 850 hPa-eko mailan tenperaturak 25 °C-ak aise gaudituz zituen. Egun batzuetan egoera hura ez zen aldatu. Aire beroa Europa iparralderaino eta Britainiar uharteen hegoalderaino iritsi zen. Hilaren 26an eta 27an bero-depresio bat sortu zen Iberiar penintsulan. Gauzak horrela, aire berozko fluxu indartsu bat sortu zen Mediterraneoetik Kantaurira, Ebroko depresioa zeharkatuz. Hilaren amaieran goi-geruzetan askatutako depresioa eta lurrazaleko depresioa latitudean iparraldera mugitu ziren, zirkulazio orokorrean sartuz. Orduan, Azoreetako antizikloia Kantaurira sartu zen ziri moduan; gailurra eta aire masa beroa pixkanaka ekialdera mugitzen ziren bitartean.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2019ko ekaineko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Deusto	18.1	23	39.7	14.4	10.7	0	15.0	5.9	4
Lasarte	17.6	23.2	35.1	13	8.4	0	66.8	28.0	7
Arrasate	17.1	24.5	36.3	10.9	4.5	0	35.4	14.1	6
Abetxuko	17.6	26.8	39.4	9.7	2.4	0	13.9	8.0	3
Páganos	19.7	27.4	40.6	12.4	5.4	0	28.0	10.7	5



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko temperatura
 Temperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Ekainean 21 abisu hori igorri ziren: 1 prezipitazio handiagatik, 2 haizeagatik haizeguneetan, 1 olatuen altueragatik nabigaziorako, 2 enbatagatik, 4 tenperatura altu iraunkorregatik, 6 muturreko tenperatura altuengatik eta 5 baso-suteengatik.

Horiez gain, 5 alerta laranja igorri ziren: 4 muturreko tenperatura altuengatik eta 1 tenperatura altu iraunkorregatik.

- Hilaren 5ean, egunaren lehen partean Britainiar uharteetan zegoen depresio bati loturiko fronte hotz bat Kantauri ekialdean barrena pasatu zen poliki-poliki. Bitartean aska bat zabaldu zen Bizkaiko golkoan. Egunaren lehen partean euria sarri egin zuen eta prezipitazioa oso ugaria izan zen, bereziki Gipuzkoa ipar-ekialdean. Prezipitazioaren intentsitatea txiki-ertaina izan zen. Arratsaldean atertzera egin zuen eta egun amaieran atertu zuen.

Estazioa	Hilak 5 mm 24 orduan
Eskas	49.5
Behobia	46.7
Añarbe	39.1
Ereñozu	36.7
Ameraun	35.8

Estazioa	Hilak 5 mm ordubeteetan
Oiartzun	11.8
Eskas	10.9
Ereñozu	10.7

Asteazkena, hilak 5: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 6an depresio bat sakondu egin zen Iberiar penintsularen ipar-mendebaldean. Miguel izena jarri zitzaion. Egunaren bigarren partean depresioa Kantauri itsasora sartu zen eta hego-mendebaldeko haizea zakartu egin zen EAEn mendebaldeko haizeguneetan. Hilaren 7an, egunaren lehen partean, depresioak Bizkaiko golkoa zeharkatu zuen eta eguerdian Britainia inguruan kokatu zen. Arratsaldean Mantxako kanalean barrena aldendu zen eta berriro ere presio altuak zabaldu ziren Kantaurin. Hilaren 7an, goizaldean, haizearen intentsitatea gogorra izan zen, Bizkaiko haizeguneetan ez ezik, barnealdean ere bai (Moreda, 83.3 km/h); gero haizea pixkanaka baretzen joan zen.



Estazioa	Hilak 6 km/h	Ordua UTC
Orduña	113.6	22:10
Punta Galea	104.4	20:30
Cerroja	100.5	22:50
Deusto	82,2	22:30

Estazioa	Hilak 7 km/h	Ordua UTC
Cerroja	109	02:50
Punta Galea	100.5	02:40
Moreda	83.3	01:10

Osteguna, hilak 6: Abisu Horia haizeagatik Bizkaiko haizeguneetan 21etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia haizeagatik Bizkaiko haizeguneetan 00etatik 09etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik kostaldeko haizeguneetan 11etatik 15etara ordu lokala.

- Miguel depresioa Bizkaiko golkotik pasatu zenean olatu handiak sortu zituen gure kostaldean; hilaren 7an, egunaren bigarren partean. Goizaldean olatuen altuera adierazgarria 0.5 m ingurukoa zen, baina goizean oso bizkor handitu ziren olatuak eta eguerdi inguruan olatuen altuera adierazgarria 3.5 m ingurukoa izan zen (Pasaiaiko portua, 3.62 m 13:00etan UTC). Arratsaldean 3 m inguruan mantendu zen. Gauean txikitzen hasi ziren olatuak eta azken orduetan 2 m ingurukoak izan ziren.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 11etatik 24etara ordu lokala.

- Aire masa hotz bat egun batzuetan Bizkaiko golkoan kokatu zen. 850 hPa-eko mailan tenperatura 2 °C ingurukoa izatera iritsi zen hilaren 10ean, 11n eta 12an. Hilaren 10ean eta 11n zerua hodeitsu egon zen eta tenperatura minimoak ez ziren oso baxuak izan, baina hilaren 11ko gauean hodeiak gutxitu egin ziren eta hilaren 12ko goizaldean barnealdean zerua hodei gutxirekin egon zen. Tenperatura minimoak jaitsi egin ziren eta Iturrietan (-0.7 °C) izotza egin zuen. Horrez gain, ekaineko tenperatura minimoetan efemerideak izan genituen.

Estazioa	Hilak 12 Tmin (°C)
Iturrieta	-0.7
Trebiño	0.1
Pagoeta	0.2
Roitegi	0.4
Salvatierra	0.4
Albaina	0.4
Subijana	0.8
Abetxuko	2.4



- Hilaren 18an tenperatura maximoak 30 °C-ra iritsi ziren kostaldeko estazio askotan eta Deustun 34.6 °C-ra. Arratsalde erdi inguruan haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen Punta Galean eta nabarmen zakartu zen, 61.6 km/h-ko bolada neurtu zen Deustun eta ordu erdian 15 °C jaitsi zen tenperatura. Haizearen norabide aldaketa kostalde osora zabaldu zen, haize-boladen intentsitatea antzekoa izan zen eta tenperatura, oro har, 7-8 °C jaitsi zen.
- Hilaren 23tik aurrera Afrika iparraldean jatorria zuen aire berozko mihi beroa Mediterraneo mendebaldera eta Levanterazabaldu zen. Hilaren 25ean Iberiar penintsulara zabaldu zen eta ekaineko azken egunetan bero-bolada eragin zuen EAEn. Hilaren 26an, eta bereziki 27an, hego-ekialdeko haizea ibili zen eta eragin handia izan zuen tenperaturan, baita minimoetan ere. Gauzak horrela, hilaren 26ko azken orduetan eta 27ko lehen orduetan hauts esekia iritsi zitzaigun eta baita Tarragonan izandako baso-sutearen partikulak ere, hego-ekialdeko haizeak bultzatuta. Hilaren 27ko goizaldean neurtu ziren tenperatura minimoak erabat ohiz kanpokoak izan ziren, bereziki Gipuzkoa eta Araba hego-ekialdean. Egun hartan tenperatura maximoak ere nabarmen igo ziren kantauri isurialdean eta Bizkaia mendebaldean efemerideak gertatu ziren. Hilaren 28an hego-ekialdeko haizeak indarra galdu zuen eta kantauri isurialdean iparraldeko haizea nagusitu zen, ondorioz eguneko tenperatura maximo altuenak Araba hego-ekialdean neurtu ziren, eta zonalde horretan ere efemerideak izan ziren. Hilaren 29an bero handia egin zuen ia Araba osoan eta hainbat estaziotan izan ziren efemerideak, Abetxuko (39.4 °C) barne. Egun hartan behetxak nagusitu ziren ipar isurialdean; kostaldean tenperatura maximoak 19-20 °C ingurukoak izan ziren eta kantauriko bailaretan 25-28 °C ingurukoak. Hilaren 30ean tenperatura jaitsi egin zen mediterraneo isurialdean, baina Ebro ibarrean 36 °C-tik gorakoak izan ziren (Moreda, 38.5 °C).

Estazioa	Hilak 26 Tmax (°C)
Ibai Eder	40.6
Sodupe-Cadagua	40.4
Galindo	40.2
Aranguren	39.9
Deusto	38.9

Estazioa	Hilak 27 Tmin (°C)
Ilarduia	25
Gasteiz	24.8
Egino	24.5



Salvatierra	24.2
Abetxuko	23.6

Estazioa	Hilak 27 Tmax (°C)
Galindo	41.5
Sodupe-Cadagua	41.1
Aranguren	41.1
Derio	41
Deusto	39.7

Estazioa	Hilak 28 Tmax (°C)
Moreda	41
Kanpezu	39
Páganos	38.9
Antoñana	38.5
Navarrete	37.9

Estazioa	Hilak 29 Tmax (°C)
Moreda	42.6
Zambrana	41.3
Páganos	40.6
Kanpezu	40.2
Abetxuko	39.4

Estazioa	Hilak 30 Tmax (°C)
Moreda	38.5
Kanpezu	37.7
Navarrete	37.2
Antoñana	37
Páganos	36.8

ESTAZIOA	T MÁX efemeride berria		EKAINA aurreko efemeridea
	T	T	Urtea
Aranguren	41.1	40.7	2015
Derio	41	40.6	2011
Deusto	39.7	39.4	2011
Punta Galea	39.1	37.3	2011
Abetxuko	39.4	38.1	2001
Gasteiz	38.6	37	2001
Ozaeta	38.6	37.2	2011



Zambrana	41.3	39.5	2003
Espejo	40.9	38.3	2015
Moreda	42.6	38.3	2017
Páganos	40.5	35.7	2011
Arboleda	39.8	36,6	2011

Ekaineko efemerideen taula.

ESTAZIOA	T MÁX efeméride beria	Aurreko efeméride absolutua	
	T	T	Urtea/Hilabetea
Moreda	42.6	38.4	2016/07
Páganos	40.5	39.1	2012/08
Zambrana	41.3	41.2	2012/08
Arboleda	39.8	37.4	2016/08

Efeméride absolutuen taula.

Asteazkena, hilak 26: Alerta Laranja muturreko tenperatura altuengatik kantauri barnealdean 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu horia muturreko tenperatura altuengatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorregatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 27: Alerta Laranja muturreko tenperatura altuengatik 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorregatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 28: Alerta Laranja tenperatura altu iraunkorregatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura altuengatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 21etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 29: Alerta Laranja muturreko tenperatura altuengatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorregatik Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 30: Abisu Horia muturreko tenperatura altuengatik Ebro ondoko eskualdean 12etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorregatik Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala.

- Bero-boladaren, hegoaldeko haizearen eta hezetasun erlatibo baxuaren ondorioz baso-suteak izateko egun aproposak ziren. Azpimarragarria da Sobronen (Araba) geratutakoa hilaren 26an. Tarragonan, Ebro ibaiaren ondoan, sute handi bat gertatu zen eta egun batzuetan iraun zuen. Haren ondorioak hilaren 27an gure zeruan nabaritu ziren, izan ere hego-ekialdeko haizeak bultzatuta errauts partikulak iritsi ziren.

Asteazkena, hilak 26: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik barnealdean.

Osteguna, hilak 27: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik barnealdean.

Ostirala, hilak 28: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik mediterraneo isurialdean..

Larunbata, hilak 29: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik mediterraneo isurialdean.

Igandea, hilak 30: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik mediterraneo isurialdean.

- Hilaren 26an eta 27an enbata bana gertatu ziren iluntzean. Hilaren 27koa gogorragoa izan zen, beroa ere handiagoa izan baitzen. Egun hartan, enbata gertatutakoan, tenperatura 12 °C jaitsi zen 10 minutuan Deustuko estazioan eta ia 17 °C ordu erdian. Hilaren 26an izandako enbatan tenperatura jaitsierak ez ziren hain handiak izan eta haize-boladak ere ez.



Estazioa	Hilak 26 km/h	Hilak 27 Km/h
Punta Galea	59.3	62.5
Deusto	53.3	47.3
Matxitxako	66.7	72
Zarautz	45.5	52.2
Santa Clara	77.3	85.7
Higer	67.8	79.4

Asteazkena, hilak 26: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Enbata 19etatik 22etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 27: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Enbata 18etatik 22etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa*: eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua*: hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa*: eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua*: hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak*: hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa*: hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa*: hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak*: hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa*: tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa*: $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa*: $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa*: $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza*: $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza*: $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza*: tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea*: prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea*: $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa*: $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra*: $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra*: $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra*: prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.